




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2006 MAR. 01
	Zk./N.º 1370
ESP. Exp.	07/0/09/1299

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta, ARALAR Taldeko Batzarkideak, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, **Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Foru Diputatuaren AGERRALDI** eskaera egin nahi du, Hondarribiko aireportuaren zabaltzeari buruz kaleratu den AENAK eginiko txostenaz Foru Aldundiak zer pentsatzen duen azal dezan.

ZIOA

Denon ahotan dago Hondarribiko aireportuaren zabaltzearen komenigarritasuna edota nola egin beharko litzatekeen balizko zabaltze hori. Gaur bertan irakurri dugu prentsan AENAK orain dela urtebete idatzitako txostena non Foru Aldundiaren planari ezetz esaten zaion. Hori dela eta, interesgarritzat jotzen dugu Foru Diputatuaren iritzia entzutea.

Donostian, 2006eko martxoak 1

Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea